

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo •


herrera-bidebieta

Kilikariak, 18 urte jaiak girotzen

Mendi-Zaleak elkarte Nafarroako mendietan izango da igandean, hilaren 20an, hain zuzen Egoitz, Sta. Barbara, Zarikieta, Mendigaña eta Iratiko zubian. Ibilaldiak 5 ordu inguruko iraupena izango du.

Mozkor Fretekideak antolatutako Paleta Goma Txapelketak dotoretasunari oparia eskainiko dio aurtengoan lehen aldiz. Bertan, txapelketako jokalariek guztiek parte hartuko dute eta batez ere aurkakoari eskua ematea, biraorik ez esatea, epailearekin eztabaidarik ez izatea... baloratuko da.

Euskal Giroa Kirol, Kultur eta Aisialdi Elkartek bukatu du jadanik aurtengo denboraldi zikloturista. Martxo aldera, udaberriarekin batera, kaleratuko du elkarte honek datorren urteko egutegia.



Kilikariak fanfarea urtetan auzoa girotzen eta auzoko izena kanpoan zabaltzen ibili da.

Herrera Kirol Elkarteak Kilikariak fanfreak urtetan egin duen lanari omenaldia eskaini nahi izan dio eta horretarako azaroaren 19a aukeratu du, auzo guztia-
rentzat festa prestatuz.

Arratsaldeko 5etan hasiko da festa. Kilikariak fanfarea Herrerako tabernak bisitatzen joango da jaiak bailiran. Arratsaldeko 19.00etan Andoaingo Txalaparta fanfare lagunak alaituko ditu herrerratarrek eta bertara hur-

bildutako bisitariak.

Arratsalde alaitsu honen ondoren afaria egingo da Herrera Kirol Elkarte-ko egoitzan.

Gauean, 23.00 etatik aurrera, Txalaparta fanfreak jotzen jarraituko du.

18 urte musika joaz

Duela 18 urte, herrerratar gazte talde bat musika jotzen hasi eta Kilikariak fanfarea eratu zuten. Urte hauetan hainbat ekitalditan parte hartu dute eta zenbait sari irabazi ere

bai, beste-

ak beste, 1993an Frantziako Cholet herriko jaialdian lehen saria irabazi zuten eta 1992an Belgikako Banda Jaialdian bigarren geratu ziren.

Kilikariak fanfarea Herreran jaio eta Herreran kokatuta dagoen elkarte da eta guk ere lerro hauekin omenaldira elkar-tu nahi dugu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XOMON

Zumardi pasealekua, 22
Tfnoa.: 393775

NAUTILUS

TABERNA

Zumardi pasealekua, 28-Tfnoa.: 400491

- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Betilen Tindaketa...

• Zedro plaza 2 Tfnoa.: 392051
• Nagusia 27 LASARTE Tfnoa.: 371891

Zūre auzoan bertan duzu aukera

bidebieta

TINDATEGIA

Lehorreko garbiketa

Zumardi pasealekua, 32 Tfnoa.: 39 41 86

Alberro

Gizonezko moda

Zumardi pasealekua, 20
Tfnoa.: 399078 DONOSTIA

KAFETEGIA

Zedro plaza 2
Tfnoa.: 39 99 52

intxaurrondo

Hiper-Eroskiaren auzia

Eroski erakitzeak Altza, Intxaurrondo eta beste hainbat auzori ekarriko dizkien kalte eta onureta hitzegin zen Larrotxene Kultur Etxean egin zen azken bileran. Garbera kolektiboak bere ikuspuntu zehatza azaldu zuen, gune komertzial hau ez eraikitzekeko arrazoi ugariak aipatuz: *«trafiko gehitzea, komertzio txikien desagerpena, inguru-nearen suntsipena...»*

Garbera kolektiboa 1993ko apirilean sortu zen. Taldekideen iritziz, *«ekintza ugari burutu ditugu, baina kasu gutxi egiten digute»*.

Azaroaren 16an, Donostiako Udalean reposizio errekurtsioa aurkeztu zuten. Bertan salatzen zuten Eroskirekin sinatutako konbenioa irregulartasunez beteta zegoela. Aldi berean, debate bat ere eskatu dute Udalare-

kin eta Eroskirekin, baina ez dute oraingoz erantzunik jaso.


Eroski eta Lau Haizeta parkea

Intxaurrondoko hitzaldian eztabaida handia sortu zen. Lau Haizeta koordinadorarentzat lehentasuna parke naturala egiteak dauka eta ez du hain kaltegarri ikusten Eroskia ondoan eraikitzea. Komertziantek txiki-

artean berriz, erabateko desadostasuna agertu zen iritzi horrekiko eta bi proiektuak bateraezinak direla adierazi zuten, Eroskiaren aurka ekintza gogorragoak egin behar direla adieraziz. Azkenerrako giroa bero-berozegoen. Oraindik denboraluzek polemika sortuko duen gaia da hau.

NAGORE IRASTORZA 9TFNOA.: 285749)

Plan Orokorrean aldaketa batzuk egin dira. Datorren azaroaren 28an onartuko den planean, auzo elkarte eta beste hainbat talderen alegazioak sartuko dira. Intxaurrondorako aurrakusi den desberdintasuna honako hau da: Marrutxipin babes ofizialeko etxeak 50 izan ordez, 150 izango dira.



Argazkia: Ximon

Txibili pasealekuko etxeek beren ohizko itxura hartu dute. Eskilara moduan aldapan kokatuta eta teilaturik gabe, erlauntza itxura hartua zuten. Hala ere, lanak aurrera doaz eta teilatua jartzean itxura hobea hartzen ari dira.

Eroriko ote da?

Zubiaurre pasealekuko bigarren zubia, trenbidea eraiki zenetik ezagutu da auzoan. Zubi estu eta ziurtasun gutxikoa, momentu honetan egoera kaxkarrean aurkitzen da. Zubitik zehar igarotzeko momentuan trena pasatuz gero, mugimendua somatzen da eta oso seguru ez denaren itxura ematen du. Ondo legoke pixka bat konpontzea, sendotasuna emanaz gutxiarik ere. Baina nork botako luke, betidanik ondo bete badu bere egitekoa?



**PARTE ZAHARRA
ESTERLINES 5**

AMEZTI

ARGIGINTZA ETA MOTA GUZTIETAKO LANPARAK

Jose Arana, 14 • Tfn oa.: 278385 - Fax: 2908786